



musikene

25/2010 ebazpena, azaroaren 23koa, musikeneren Zuzendari Akademikoarena; horren bidez, Ikastegiaren Kontseiluan musikenerako ikasleen bi ordezkari hautatzeko prozesua bultzatzeko epea zabaldu dela argitaratzen da.

Resolución 25/2010, de 23 de noviembre, del Director Académico de musikene, por la que se hace pública la apertura del plazo para promover el proceso de elección de los dos representantes de los/las alumnos/as de musikene en el Consejo del Centro.

Musikeneren Araudi Organikoak "Ikastegiaren Kontseiluaren" osaera eta funtzionamendua arautzen ditu hezkuntza-komunitateko partaidetza-organo gisa; araudi horretan xedatu denez, ikasleen ordezkariak zuzeneko eta sekretupeko hautaketaren bidez aukeratuko dira.

El Reglamento Orgánico de Musikene regula la composición y funcionamiento del "Consejo del Centro" como órgano de participación de la comunidad educativa, determinándose que la representación del alumnado se concretará en dos personas, y se efectuará mediante elección directa y secreta.

Gaur egun ikasleen ordezkariarik legez ez dagoenez, aurrekoek beraien agintaldia amaitu dutelako, eta hutsik dauden leku horiek bete beharra dagoenez, egoki deritzogu beroiek betetzeko prozesua arbitratzea, Musikenerako Zuzendaritza Artistikoaren 2003ko abenduaren 2ko Ebazpenaren 4. artikuluan ezarritako prozedimendua jarraituz.

Ante la inexistencia al día de hoy de representantes legales de los alumnos, al haber expirado el plazo para el que fueron designados los anteriores, y ante la necesidad de cubrir las plazas vacantes, procede arbitrar la cobertura de estas vacantes a la luz del procedimiento establecido en el artículo 4 de la Resolución de la Dirección Artística de Musikene, de fecha 2 de diciembre de 2003.

Ondorioz,

En consecuencia,

EBATZI DUT

RESUELVO

Lehena: Ikastegiaren Kontseiluan ikasleen bi ordezkari hautatzeko prozesua bultzatzeko epea zabaldu dela argitaratzea; epe hori hamar egunekoa izango da, Ebazpen hau Musikenerako iragarki-taulan argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Primero: Hacer pública la apertura del plazo para promover el proceso de elección de dos representantes de los alumnos/as en el Consejo del Centro, que será de diez días contados a partir de aquél en el que esta Resolución sea publicitada en el tablón de anuncios de Musikene.

Bigarrena: Hautatzeko prozesua bultzatzeko, nahikoa izango da ikasle batek Musikeneren Zuzendaritza Akademikoari formalki eta idatzita eskatzea.

Segundo: Para promover el proceso de elección será requisito suficiente que un/a alumno/a lo solicite formalmente y por escrito ante la Dirección Académica de Musikene.

Hirugarrena: Eskaera hori jasotakoan, eskaera egin duten ikasleek ikasle-batzarra deitzeko eskatuko diete Musikenerako arduradunei; batzar horren eguna eta ordua eskatzaileek zehaztuko dute, Zuzendaritza Akademikoak esateko duena entzun ondoren.

Tercero: Una vez recibida esa petición, el/la alumno/a o los/las alumnos/as que la han cursado, solicitarán de los responsables de Musikene la convocatoria de una asamblea de alumnos/as, cuya fecha y hora se determinará por los peticionarios, oída la Dirección Académica.

Juan Carlos Pérez Gómez
ZUZENDARI AKADEMIKOA/DIRECTOR ACADÉMICO